



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko abenduaren 14a

68 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena. Emendakinak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena. Emendakinak aurkezteko epea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egin (5. or.).
- Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (5. or.).
- Nekazaritza ustiapenak hobetzeko laguntzei buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (6. or.).
- Elikagaietarako ez diren laboreei buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (7. or.).
- Cederna-Garalur Elkartek kudeatzen dituen hainbat plani buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (8. or.).
- Iruztun-Andoain autobideko hainbat zatitan izan diren lur-jauziei buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (9. or.).
- “Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programei” emaniko dirulaguntzei buruzko galdera, Jesus Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egin (10. or.).
- Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera, Jesus Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egin (10. or.).
- Rafael Moneoren obrari eskainirik Tuteran egin gogo den museoaren gainean Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).

- “Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).
- “Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (13. or.).
- “N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (14. or.).
- “Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (14. or.).
- “Lurzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (15. or.).
- “Alde historikoak konpondu eta errekupeztatzea finantziatzeko bulegoendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (16. or.).
- “Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” izeneko kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (17. or.).
- “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (18. or.).
- “Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (19. or.).
- “Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoretzendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Javier Sanchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (20. or.).
- 1995eko abenduaren 31rako, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako artikuluko ezberdinen itxiera-aurreikuspenei buruzko galdera. Atzera bidalitako galdera (21. or.).
- Osasun laguntza bereziaren jarduera eta lurralde antolamenduari buruzko galdera Atzera bidalitako galdera (22. or.).
- “Familia ugaria”ren konfigurazio berriari buruzko galdera Atzera bidalitako galdera (22. or.).
- Urriaren bigarren hamabostaldian osasun zentroetako zuzendarien ordezkapen jakin batzuei buruzko galdera. Atzera bidalitako galdera (22. or.).
- Nafarroako Gobernuaren Lehendakariaren etxebizitza, zaindari eta abarrei buruzko galdera. Atzera bidalitako galdera (23. or.).
- Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak argitaratu duen agenda-egutegiari buruzko galdera. Atzera bidalitako galdera (23. or.).
- Fondo publikoen erabilera begiratzeko Gobernuak hartutako erabakiei buruzko galdera. Atzera bidalitako galdera (23. or.).
- Aresoko Lehen Mailako eskolari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.)

B Sails:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena*EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, honako Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Osoko Bilkurak, 1996ko azaroaren 28an eginiko bilkuran, Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Berau 1996ko urriaren 11ko 53 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Beraz, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikulua ezartzen duenarekin bat etorri, eta Bozeramaleen Batzarrari entzun eta gero,

ERABAKIA:

Lehena.- Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena ohiko jardunbidez bidera dadila xedatzea.

Bigarrena.- Proposamen honi buruzko irizpe-na emateko eskumena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.”

Erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita, **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1997ko otsailaren 4an 12etan bukatuko dena.** Epe honek iraun bitartean, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak proposamenari emendakinek aurkeztu ahalko dizkiete, Erregelamenduko 126. eta 145.5 artikuluek ezartzen dutenarekin bat etorri.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena*EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, honako Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Osoko Bilkurak, 1996ko azaroaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Berau 1996ko urriaren 23ko 55 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Beraz, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikulua ezartzen duenarekin bat etorri, eta Bozeramaleen Batzarrari entzun eta gero,

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege proposamena ohiko jardunbidez bidera dadila xedatzea.

Bigarrena.- Proposamen honi buruzko irizpe-
na emateko eskumena Ekonomi, Ogasun eta
Aurrekontuen Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean
argitara dadila agintzea.”

Erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen
hasita, **hamabost laneguneko epea irekiko da,
1997ko otsailaren 4an 12etan bukatuko dena.**

Epe honek iraun bitartean, Parlamentari Taldeek
eta Foru Parlamentariak proposamenari emenda-
kinak aurkezten ahalko dizkiote, Erregelamendu-
ko 126. eta 145.5 artikuluek ezartzen dutenarekin
bat etorritz.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Sails:
GALDERAK

Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera

ANDRÉS BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenarekin bat etorriz, ondorengo galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Castejón-Soria trenbidea da Gaztela eta Leongo Autonomi Elkarteko hiriburu hau Nafarroako Erriberako herriein lotzen duen bakarra. Horregatik, jakin nahi da:

1.- Egia al da 1996ko abenduaren 1ean RENFEk aipatu Castejón-Soria zerbitzua emateari uztiko diola?

2.- Cintruénigo, Fitero eta aldameneko herrietako biztanleak kaltetuak izango dira zerbitzua bukatzen bada, eta halaber, kaltetuak izango dira Sorian bizi eta gure Foru Komunitatera trenbide hau erabiliz datozen ikasleak. Hau honela, hartuko al du Nafarroako Gobernuak neurririk trenbide honen ixtea galarazteko?

3.- Zer konpromezu hartu du Nafarroako Gobernuak RENFErekin Nafarroako Erriberako biztanleak tren-zerbitzurik gabe geldituz ez daitezela?

Iruñean, 1996ko azaroaren 25a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Castejón Soria trenbidea kentzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Castejón Soria trenbidea kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezartzen dutenarekin bat etorriz, ondorengo galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Datorren 1996ko abenduaren 1ean Castejón-Madril (Soriatik barna) eta alderantziz doan tren erregionala kendu egingo da, Soria-Castejón eta

Castejón-Soria zatiari dagokionean, hau delarik Corella eta Cintruénigo bezalako Nafarroako herriei zerbitzua ematen dien trenbide bakarra.

Gaztela eta Leongo Autonomi Elkartek RENFErekin negoziatu ohi du tren hau mantentzea, eta beste hainbeste egiteko asmo du, berriz ere, Soria-Madril Madril-Soria zatiari eusteko adostasuna lortu nahian. Hortaz, Nafarroatik premiaz ekiten ez bazaio, are eta Errioxako Autonomi Elkarterekin ere behar bezala koordinatuz (Cervera del Río Alhama ere, besteak beste, trenbide-zerbitzurik gabe geldituko litzateke), herri hauek Madrilekin lotzen dituen tren-zerbitzu bakarra galduko da.

Nafarroaren kasuan, arazoa are larriagoa da, tren honek lotzen baitu, Castejónen, Logroño, Zaragoza eta Iruñera doazen beste zerbitzu batzuekin, eta gainera Sorian matrikulatuta dau-

den berrogei ikasle nafar baino gehiago garraiatzen baititu.

Horregatik jakin nahi da:

1. Gobernuak ba ote duen Castejón-Corella-Cintruénigo-Madril lotzen dituen tren bakar hau kendu nahi izateko ingurabarren berri.

2. Ahalezkoa eta are beharrezkoa irizten ote dion RENFErekin negoziatzen hasteari, Gaztela eta Leongo Autonomi Elkartek egiten duen bezala, trenbide-zerbitzu honi eutsi ahal izateko.

3. Harremanik izan ote duen bai RENFErekin eta bai Errioxako Autonomi Elkarterekin, litekeen itun batek zenbateko kostu ekonomikoa egin lezakeen baloratu ahal izateko.

Iruñean, 1996ko azaroaren 25a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nekazaritza ustiapenak hobetzeko laguntzei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza ustiapenak hobetzeko laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1992an ezarri ziren nekazaritza ustiatgien eraginkortasuna hobetzeko laguntzak nekazaritza ustiatgien eraginkortasuna hobetzen laguntzeko asmoz, egiturak sendotu eta birrantolatuz eta jardura osagarriak sustatuz.

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ere agertu ziren laguntzok "Nekazaritza ustiate-

gien eraginkortasunaren hobekuntza" izeneko proiektuan (20003), hain zuzen ere 97068-7 lerroan, hurrengo aurrekontu-kontusailari dagokionean, alegia, "Nekazaritza ustiatgien eraginkortasunaren hobekuntza. (FEOGA-O) (**), sailkapen organikoa: 71510; ekonomikoa: 7700 eta funtzionala: 5313. 800 milioi pezetako kopurua ezarri zitzaion.

Parlamentu galdera hau egiten da laguntzok 1996ko ekitaldian nola erabili diren jakiteko, zehatz-mehatz.

Gai honi gagozkiolarik, hurrengoei erantzutea nahi da:

1.- Nafarroako nekazaritza egituren eraginkortasuna hobetzeko laguntzen erregelamendua onetsi zuen irailaren 28ko 297/1992 Foru Dekretuaren edukia aldatu duten Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- 1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan kontusail horretarako jarri zen kopurua, eta goranzko aldaketak, bai Parlamentu honek Nafarroako Aurrekontu Orokorrek izapidatu eta onartu bitartean, bai Foru Aginduen bidez (transferentzien bidez) zein Ebazpenen bidez (Kreditu Gehikuntzaen bidez) gauzatuak, oraingo

aurrekontu-ekitaldian kontusail honetan eskura izan den kopurua bete arte.

3.- 1996ko ekitaldian eskura zegoen kopurua-
ren banakaketa, eskura dagoen kreditu gisa edo
1995eko ekitaldian urte anitzetako gisa konpro-
metitutako kreditu legez.

4.- Oraingo aurrekontu ekitaldian izapidatu
diren espedienteen kopurua. Indarreko legeriak
ezarritako laguntza lerroen arabera sailka bitez.
Aipa bitez espediente zenbakia, eskaera eguna,

kopurua (aipa bedi korrituen dirulaguntza edo
zuzeneko dirulaguntza den) eta ordainketaren
eguna.

5. Oraingo ekitaldian izapidatu diren espedien-
teetan zer gastu konpromezu hartu den 1997 eta
1998 urteetarako.

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez
Turrillas

Elikagaietarako ez diren laboreei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko
abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier
Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Elikaga-
gaietarako ez diren laborantzei buruz egindako
galderaren biderapena onestea erabaki zuen.
Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del
Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxi-
kiriko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erre-
gelamenduko 184. artikuluan ezarritakoaren babe-
sean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun
diezaioten:

1992an Europako Batasuneko belar landake-
ten alorreko Nekazaritza Politikaren eraberritze
berria onetsi eta abian jartzen hasi zen. Eraberrit-
zearen helburuetariko bat ekoizpenari eustea da.
Hori dela eta, zenbait ekoizleri (teorian beren
ustiategian 92 tona belar landaketa baino gehiago
ekoizten dituztenei), laguntzak kobratzeko, ustia-
tegiaren ehuneko hainbeste "landalurrak kentze-
ko", hots, ez ekoizteko, erabiltzea ezartzen zaie
betebehar gisa.

Halarik ere, baimendu egiten da azalera horre-
tan bestelako ekoizpenak landatzea, haien azke-
neko xedea gizakiak edo animaliak elikatzea ez
bada. Funtsean, ekoizpen "bioenergetikoak" dira
(biomasa, bioetanola edo bioolioak eskuratzeko),

zuntz zelulosikoak, olioak, landare usaintsuak eta
sendabelarrak ekoizteko.

Gure Komunitatean jakin badakigu koltza eta
ekilore ez elikagarriak sustatzen saiatu dela, hain
zuzen ere.

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek
kontusail bat bildu zuen "Laborantza ez elikaga-
rriendako dirulaguntza. NPAREN eraberritzea"
(26320-4 lerroa) zeritzona. Hona hemen haren
sailkapen organikoa: 71130, Ekonomikoa: 7700
eta Funtzionala: 5313. "Ikerketa eta Garapena"
(10001) proiektuan sartu zen, Nekazaritza, Abel-
tzaintza eta Landa Sustapeneko Departamentuko
"Ikerketa eta Garapena. Prestakuntza eta Tekno-
logia Transferentziak" (10) programan.

Gai horri buruz, galdera hauei erantzun dakien
eskatzen dut:

1.- Zein izan da Nekazaritza Politika Amankomunaren eraberritzearen hasieratik landaketa ez elikagarriek Nafarroan izan duten bilakaera?

2.- Ikerketaren bati ekin zaio Nafarroan landaketa ez elikagarriek izan duten egokitzapen eta garapena aztertzeke?

3.- Zehazki, zer jarduketatan erabili dira 1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreko 26320-4 lerroan kontsignaturiko fondoak?

4.- Bururatu ote zaio Nafarroako Gobernuari horri buruz "abiapuntuko esperientzia" bat burutzeko aukera edo Europako Batasunean energia iturri berriztagarriak xede dituzten programetan sartzeko aukera?

5.- Labur bildurik, zer jarduketa burutuko ditu Nafarroako Gobernuak, bai landaketa ez elikagarri dagokienez, bai. orokorrean, energia berriztagarriak eskuratzea xede duten landaketei dagokienez?

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez

Turrillas

Cederna-Garalur Elkarteak kudeatzen dituen hainbat plani buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Cederna-Garalur Elkarteak kudeatzen dituen hainbat plani buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Cederna-Garalur elkarteak Leader programa kudeatzeko sortu zen.

Elkarte horren jarduketek, denboraren denboraz, hasierako helburua gainditu dute alde handiz eta Nafarroako Mendialdeko landa garapena sustatzeko erakunde bihurtu da.

Elkargune horrek landa garapen bateratu eta osotua bultzatzeko gizarte eta ekonomi eragile guztien elkargune eta ordezkari zatako balio du.

Horretan zirauela, 1995eko ekitaldian, Cederna-Garalurrek programa batzuk prestatu zituen, xede bakarra bazeukaten ere, ikuspegi batzuetatik abiatzen zirenak.

Programa horiek 1996an hasi dira burutzen.

Gai horri buruz, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- 1996-99 Jarduketa Planeko politika orokorreko jarraibideak eta kasuan kasuko ekintzen garapena.

2.- "Nafarroako Mendialdea" programaren betetze mailaren egungo egoera.

3.- Leader II programan onarturiko proiektuetako laguntza eta inbertsioen banaketa, eskualdeka.

4.- Dirulaguntzak bizilagunen arabera zenbatzea, eskualdean-ekualdean.

5.- Cederna-Garalurren kidegurik ez dauden Toki Entitateen zerrenda. Aipa bitez Elkarte horretan ez sartzeko zioak, zein diren jakinez gero.

6.- Europako Batasuneko gizarte eta ekonomi garapenerako Leader, Remote, Apef-Myrina eta Aton Ekimenen egungo egoera, Nafarroan onartuak dauden horien.

7.-Leader II programari dagokionez, argibideak eskatzen dira:

Haren lehenengo aldian gaur arte emaniko laguntzei buruz (96-97 denboraldian).

Eskualdekako betetze-mailari buruz.

Gaur arte onartu eta erabat burutu diren proiektuei buruz.

8.- Leader II programan baimenduko balitz, kontutan hartuko litzateke agortuak dauden lerroetatik beste neurri batzuetara fondoak eramateko aukera.

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Irurtzun-Andoain autobideko hainbat zatitan izan diren lur-jauziei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Irurtzun-Andoain autobideko hainbat zatitan izan diren lur-jauziei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregulamentuko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Iragan martxoan, Nafarroako Gobernuak Irurtzun-Andoain autobideko obraren behin behineko likidazioa onetsi zuen, gure Komunitatean barna pasatzen den tartearen zatian.

Burutua izateko obrak banatu ziren tartetako bakoitzerako onarturiko behin behineko likidazioak, dauzkagun datuen arabera, kopuru hauek egiten ditu:

| | |
|--|---------------------|
| Mugiroko Bentetatik Azpirozko Tunelera bitartekoa: | 7.796.000.000 pzta. |
| Azpirozko Tuneletik Gipuzkoako Mugara bitartekoa: | 9.645.000.000 pzta. |
| Irurtzun-Latasa saihebidia: | 5.161.000.000 pzta. |
| Irurtzun-Etxarren saihebidia: | 4.484.000.000 pzta. |
| Latasa-Mugiroko Bentak saihebidia: | 7.310.000.000 pzta. |
| Leitzarango Zubia (Nafarroa-Gipuzkoa lotunea): | 414.000.000 pzta. |

Autobiako Nafarroako tartetarako, guztira, 34.810.000.000 pezeta egiten du.

Autobia trafikorako ireki zenetik, arazo batzuk gertatu dira, bidetik iragatea eragotzi dutenak, gehienbat, Ferreria eta Erga tuneletan izaniko lurjauziak. Horietarik azkena, 1996ko urriaren 6an gertatu zen.

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, 1996ko azaroaren 15eko 60 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko erantzunean, hau zioean:

Bi tuneletako auskultazio azterketa bati ekinen zitzaiola, haietako karakterizazio geometrikoa eta estalkiaren erresistentzia zein den jakiteko.

Obrak behin betikoz hartzeari ekin zaiola, baldintza pleguan agertzen dena baino denbora gehiago iragan bada ere, ustez kontratistari egotzi behar zaizkion xehetasun batzuk ebazteke daudelako.

Bere Departamentuak, 1996ko urriaren 23a arte, ez zuela bestelako anomaliarik aurkitu, ezin aurreikus zitekeelarik ordua arte gertatutakoen antzeko gorabeherarik.

Bere Departamentuak Azterketa hori eskatu zuela, asmoa zuelarik urriaren 21etik 25era bitarteko astean hartan jarduteko, eta azteketa buruzko epea hilabetekoa zela.

Atzo, azaroak 25, 12 m² ehun iragazkaizkarri, galtzadaren gainean tunelean zintzilik zegoena, kentzea beharrezkoa izan zen. Karril bat trafikoa-rendako moztuta gelditu zen obrak egiten ziren bitartean.

Gai horri buruz, tarte bakoitzerako, argibide hauek eskatzen dira:

1.- Hasierako kontrata bidezko betetze-mailaren aurrekontua (baldintza pleguan bildurik dagoena), obrak esleitutakoan.

2.- Gaur arteko guztirako kopuru ziurtatua eta atxikipenak, abalak, zehapenak etab. direla eta enpresa esleipen-hartzaileei ordaindu beharreko kopuruak.

3.- Birplanteatze akta izenpetzeko, obrak buruzko eta likidazioak izenpetzeko daten zerrenda eta behin behineko edo behin betiko likidazioen gaurko egoera.

4.- Obrak behin-behinean hartzeko egoeran dauden tartetarako eta obrak behin betikoz ez hartzeko zio zehatzak, baita bermealdian izan diren aldaketa edo konponketen zenbatekoa ere.

5.- Enpresa esleipen-hartzaileen erreklamazioen zio eta zenbatekoak, bermealdiaren luzapen hari dagokionez.

6.- Autobia trafikoarendako ireki eta gero arazoak konpontzeko eginiko obren zerrenda, burutu dituzten enpresak eta lanen aurrekontua.

7.- Erga eta Ferreria tunelak pasatzen diren alderdietako proiektua prestatu baino lehen egin zen Azterketa Geologikoaren prestakuntzaren data eta haren egileak.

8.- Azterketa haren emaitzaren laburpena, galdera honi erantzun orduko bukatua egonen baita, sorturiko arazo bakoitzari eta zio geologikoei edo eraikuntza akatsei dagokienez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 27a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programei” emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak “Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programei” emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olleta, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeari

atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluen babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programetako aurrekontu kontusailei buruz Kontuen Ganbarak emandako txostenetatik ateratzen da dirua jaso dutenek arau hausteak egin dituztela fondoekin.

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik dirulaguntzak ematen jarraitzeko arau hausteak antzeman zaienei -behin baino gehiagotan, batzuei? Hala bada, zer neurri hartuko ditu?

Iruñean, 1996ko azaroaren 26a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olleta, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluen babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Nafarroako Gobernuak zenbat nerabe ditu egun bere babespean hartuta?

2.- Zenbat pisu eta pertsona gazteok zaintzeko?

3.- Zenbat da nerabe bakoitzeko gutxi gorabeherako gastua?

Iruñean, 1996ko azaroaren 26a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Rafael Moneoren obrari eskainirik Tuteran egin gogo den museoaren gainean Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Rafael Moneoren obrari eskainirik Tuteran egin gogo den museoaren gainean Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Berrikitan sortu da Tuteran museo bat Rafael Moneori, mundu osoan ezagutzen den arkitektoa berau, eskaintzeko ideia. Mario Gabiriak eta Gizalain Elkarteak plazaratu zuten lehenbiziko aldiz ideia hori Rafael Moneoren obraren itzala aitortu eta, era berean, Tuterako alde zaharra errekupe-ratzen eta biziberritzen lagundu ahal izateko.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Gobernua bat ote datorren Rafael Moneoren obrari eskainitako Museoa sortzeko ideiarekin.

2.- Baiezkoan, laguntza emateko prest al dago aurrekontu-kontusaila sortuz, proiektua garatu eta horretarako egokitzat jotzen den eraikina erosteko?

3.- Ideia ontzat jotzen ez badu edo aurrekontu lerroa jartzeko proposamena egokitzat jotzen ez badu, zeintzuk lirateke arrazoiak?.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

“Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak” izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 26370-0 lerroa biltzen dute, “Ebroko laborategiarendako dirulaguntza. Ikerketa eta garapen jarduerak” izeneko kontusailean. Haren dotazioa 15 milioi pezetakoa da.

Kontusail hori "Ikerketa eta Garapena (10001)" proiektuan dago, "Ikerketa eta Garapena, Prestakuntza eta Teknologia Transferentziak (10)" programan. Hona hemen haren sailkapen organikoa: 71320, Ekonomikoa: 7700 eta Funtzionala: 5421.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Kontusail horren erabilpena arautzeko aplikatzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpoko ekarpen edo finantzaketaren bidez (Europako Batasuneko eta MAPAko laguntzen bidez, kasu),

kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik .

4.- Laborategi horrek egin dituen ikerketa eta garapen lanen zerrenda, ahalik eta zehatzena: lan mota, noiz eskatu zen, izenburua, aurrekontueta-ko kontusail horretan kontsignaturiko guztirako kostua, noiz aurkeztu zen...

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako" izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I+G jardueretarako" izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarri-rikaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 26370-0 lerroa biltzen dute, "Nekazaritza eta elikadura industriarendako laguntzak I + G jardueretarako" izeneko kontusailean. Haren dotazioa 16 milioi pezetakoa da.

Kontusail hori "Ikerketa eta Garapena (10001)" proiektuan dago, "Ikerketa eta Garapena, Prestakuntza eta Teknologia Transferentziak (10)" programan. Hona hemen haren sailkapen organikoa: 71320, Ekonomikoa: 7701 eta Funtzionala: 5421.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Kontusail horren erabilpena arautzeko aplikatzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpoko ekarpen edo finantzaketaren bidez (Europako Batasuneko eta MAPAko laguntzen bidez, kasu), kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik .

4.- Aurrekontualdi honetan laguntza horiek emateko bideraturiko espedienteen zerrenda, ahalik eta zehatzena: zenbat espediente, noiz eskatu ziren, zer enpresa, elkargo edo entitate

eman zaizkien kontusail horretako diruak, noiz eman ziren, zenbat eta noiz ordaindu ziren.

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espe-

dienteak barne.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Landare kontserben industria lehiakortasuna hobetzea” izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarrikaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landa Sustapeneko Departamentuaren xedeetariko bat (irailaz geroztik, Elikadurakoa denarena), 1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan bildua dagoena, nekazaritzako elikagaien industrializatzea eta merkaturatzea bultzatzea da, jarduketak planfikatuz eta koordinatuz:

Lehiakortasun maila hobetzeko.

Kalitatea bultzatzeko.

Kudeaketa eta prestakuntza teknika berriak erabiltzeko.

Nekazaritzako elikagaien berezko jardueri eusteko.

Horretarako 97044-0 lerroa onartu zen aurrekontuetan, “landare kontserben industria lehiakor-

tasuna hobetzea” izeneko kontusailean. Haren dotazioa 165 milioi pezetakoa da.

Kontusail hori “Nekazaritzaren industrializatzea eta merkaturatzea hobetzea (20004)” proiektuan dago, “Nekazaritzako baliabideak hobetzea” programan. Hona hemen haren sailkapen organikoa: 71140, Ekonomikoa: 7701 eta Funtzionala: 7223.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Kontusail horren erabilpena arautzeko aplikatzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpo ekarpen edo finantzaketaren bidez (Europako Batasuneko eta MAPAko laguntzen bidez, kasu), kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik .

4.- Aurrekontua honetan bideraturiko espedienteen zerrenda, ahalik eta zehatzena: zenbat espediente, noiz eskatu ziren, zer enpresa, elkar-go edo entitate eman zaizkien kontusail honetako diruak, noiz eman ziren, zenbat eta noiz ordaindu ziren.

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak” izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarrikaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 26370-0 lerroa biltzen dute, “N.P.A.ren eraberritzea. Ingurugiro programak” izeneko kontusailean. Haren dotazioa 116 milioi pezetakoa da.

Kontusail hori “Nekazaritzako ustiatgien eraginkortasuna hotzea (20003)” proiektuan dago, “Nekazaritzako baliabideak hobetzea (20)” programan. Hona hemen haren sailkapen organikoa: 71520, Ekonomikoa: 4700 eta Funtzionala: 5313.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Kontusail horren erabilpena arautzeko aplikatzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpo-ko ekarpen edo finantzaketaren bidez (Europako Batasuneko eta MAPAko laguntzen bidez, kasu), kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik .

4.- Aurrekontualdi honetan kontsignaturiko kopuruaren erabilerari buruzko zerrenda, ahalik eta zehatzena: ingurugiro programak, noiz hasi eta bukatu ziren, bakoitzaren zenbatekoa, programen egileak, zer elkargo, entitate edo erakunde eman zaien kontusail honetako dirurik.

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Alokairuko etxebizitzaren parke publikoa sortzea” izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregela-menduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarri-rikaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek guztira 6.410.168.000 pezeta gastatu zituzten "Etxebizitzak eraiki eta zaharberitzea (20)", guztira 1.581.100.000 pezetako dirusarrerak zenbatsi zirelarik guztira.

Aurrekontu-dotazio horien xedea hiritarrei etxebizitza bat erostea erraztea zen, Konstituzio-ak etxebizitza duina izateko aitortzen duen esku-bidea gauzatu zelarik.

Hortik aparte, eskubide hori erabiltzeko dauden oztopoak gainditu nahi ziren. Izan ere, oztopo horien zioa da, funtsean, titulartasun pribatu eta publikoko eraikitzeke lurzoruaren eskuragarritasuna gero eta txikiagoa dela. Horregatik etxebizitza eskaintza ez da aski gure Komunitateko jendetza-aren benetako beharrak betetzeko.

Lurzoru aski ez dagoenez, hori garestitu egiten da. Horren ondorioz, salgai dauden etxebizitza eraikien salneurriak ia-ia eskuraezinak dira dirusar-rrera gutien duten gizarteko geruzendako.

Eskaerari laguntzeko sistemei eutsi ere egin nahi zitzairen, alokairuari lehentasun nabarmena ematen zitzaierarik.

Programa honetan, "Etxebizitzak eraiki eta zaharberitzea (20000)" proiektuan, 11881-6 kontusaila sartu zen, "Alokairuko etxebizitzaren parke

publikoa sortzea" izenekoa. 500 milioi pezeta zegoen horniturik. Hona hemen haren sailkapena: Organikoa: 33210, Ekonomikoa: 6020 eta Fun-tzionala: 4311.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Kontu horren erabilpena arautzeko aplika-tzekoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda eta alokairuko etxebizitza publikoak erosteko interesa duten hiritarrek bete beharreko baldintzak.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpo-ko ekarpen edo finantzaketaren bidez, kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik .

4.- Aurreikusiriko helburua aurrekontualdi honetan lortzeko eginiko jarduketaren zerrenda, ahalik eta zehatzena: zenbat etxebizitza dauden kontusail horren betetze-mailak ukiturik, zenbat etxebizitza dauden jarduketa bakoitzean eta non, araubideen eta ekimenen arabera sailkapena...

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espe-dienteak barne.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Lurzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea” izeneko aurrekontu-kontu-sailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Lurzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea" izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galdera-ren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegile-ak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarrikaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek guztira 6.410.168.000 pezeta gastatu zituzten "Etxebizitzak eraiki eta zaharberritzea (20)", guztira 1.581.100.000 pezetako dirusarrerak zenbatsi zirelarik guztira.

Aurrekontu-dotazio horien xedea hiritarrei etxebizitza bat erostea erraztea zen, Konstituzioak etxebizitza duina izateko aitortzen duen eskubidea gauzatu zelarik.

Hortik aparte, eskubide hori erabiltzeko dau den oztopoak gainditu nahi ziren. Izan ere, oztopo horien zioa da, funtsean, titulartasun pribatu eta publikoko eraikitzeo lurzoruaren eskuragarritasuna gero eta txikiagoa dela. Horregatik etxebizitza eskaintza ez da aski gure Komunitateko jendetzaren benetako beharrak betetzeko.

Lurzoru aski ez dagoenez, hori garestitu egiten da. Horren ondorioz, salgai dauden etxebizitza eraikien salneurriak ia-ia eskurazekin dira dirusarrerera gutien duten gizarteko geruzendako.

Programa horretan, dirusarreraren atalean, "Etxebizitzak eraiki eta zaharberritzea (20000)" proiektuan, 34820-7 kontusaila sartu zen, "Lurzorua, etxebizitzak eta eraikinak saltzea" izenekoa. 1.000 milioi pezetako dirusarrerak lortzea espero zen. Hona hemen haren sailkapena: Organikoa: 32200 eta Ekonomikoa.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- 1996ko ekitaldian sarturiko diru-kopuruen sailkapena, jarduera bakoitzeko, helburua, zenbatekoa, ukituriko pertsona, enpresa edo entitateak, etab.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Alde historikoak konpondu eta errekuperatzea finantziatzeko bulegoendako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9aan egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Alde historikoak konpondu eta errekuperatzea finantziatzeko bulegoendako dirulaguntzak” izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta

hurrengoek ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaiten:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 6.410.168.000 pezetako gastua esleitu zioten guztira "Etxebizitzak eraiki eta konpontzea (20)" Programari, guztizko dirusarrerara 1.581.100.000 pezetatan jarri zelarik.

Dotazio horien helburua zen herritarrek etxebizitza duina eskuratzea erraztea, Konstituzioak dakarren etxebizitza duina izateko eskubidearen eraginkortasunaren bila.

Eskubidea benetan gauzatzeko oztopoak ere gainditu nahi ziren, oztopoak, funtsean, eraikitzeo gero eta lur gutxiago izatetik baitatoz, lurra pribata zein titulartasun publikokoa izan, hartara, etxebizitzaren eskaintza ez da nahikoa gure Komunitateko biztanleriaren benetako beharrianak asetzeko.

Lur eskasia horrek prezioa handitzen du eta eraikitako etxebizitzetara eragiten die, horien merkatu-prezioa ia-ia harrapaezina delarik gutxien irabazten duten gizarte-mailendako.

Programa horretan eta "Etxebitzak eraiki eta konpontzea (20000)" proiektuaren barruan 11840-9 zenbakiko aurrekontu-kontusaila sartu zuten, "Alde historikoak konpondu eta errehabilitatzea finantziatzeko bulegoendako dirulaguntzak" izenarekin eta 245 milioi pezeta esleitu zioten hurrengo sailkapenekin: organikoa, 32200; ekonomikoa, 4459; eta funtzionala, 4311.

Parlamentuko galdera hau egiten dut ahalik eta zehaztasun handienaz jakiteko kontusail hau nola erabili den 1996ko ekitaldian zehar. Horretarako, hurrengoak erantzutea nahi da:

1. Kontusail horren erabileraren arauketari ezar dakizkiokeen foru-lege, -dekretu eta -aginduen zerrenda.

2. Foru agindu eta ebazpenen bidez gauzaturiko gorako edo beherako aldaketak, eta baita

aurrekontuz kanpoko ekarpen edo finantzaketaren ondoriozkoak ere, 1996ko aurrekontu ekitaldian zehar erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1996ko ekitaldian eskura izan den guztizko kopurua, eskurako kreditua dela edo 1995eko ekitaldian hitzartutako kreditua dela.

4.- Aurreikusitako helburua erdiesteko, oraingo aurrekontu ekitaldian burutu diren jarduketan zerrenda ahalik eta zehatzena (biztanleria, dirulaguntzaren zenbatekoa, norakoa, eskaria, ematea eta ordainketa noiz egin diren....)

5.- Oraingo ekitaldian izapidatu diren espedienteetan 1997 eta 1998 ekitaldietarako hartu diren gastu-konpromezuak.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” izeneko kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak "Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea" izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregulamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreko guztira 6.410.168.000 pezeta gastatu zituzten

"Etxebizitzak eraiki eta zaharberritzea (20)", guztira 1.581.100.000 pezetako dirusarrerak zenbatsi zirelarik guztira.

Aurrekontu-dotazio horien xedea hiritarrei etxebizitza bat erostea erraztea zen, Konstituzioak etxebizitza duina izateko aitortzen duen esku-bidea gauzatu zelarik.

Hortik aparte, eskubide hori erabiltzeko dauden oztopoak gainditu nahi ziren. Izan ere, oztopo horien zioa da, funtsean, titulartasun pribatu eta publikoko eraikitzekeo lurzoruaren eskuragarritasuna gero eta txikiagoa dela. Horregatik etxebizitza eskaintza ez da aski gure Komunitateko jendetza-aren benetako beharrak betetzeko.

Lurzoru aski ez dagoenez, hori garestitu egiten da. Horren ondorioz, salgai dauden etxebizitza eraikien salneurriak ia-ia eskurazekin dira dirusarrerara gutien duten gizarteko geruzendako.

Programa honetan, "Etxebizitzak eraiki eta zaharberritzea (20000)" proiektuan, 93002-2 kontusaila sartu zen, "Lurzorua eta etxebizitza esku-

ratu eta sustatzea" izenekoa. 1.500 milioi pezetaz zegoen horniturik. Hona hemen haren sailkapena: Organikoa: 33210, Ekonomikoa: 6000 eta Funtzionala: 4311.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Kontu horren erabilpena arautzeko aplikatzeak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda eta alokairuko etxebizitza publikoak erosteko interesa duten hiritarrek bete beharreko baldintzak.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpoko ekarpen edo finantzaketaren bidez, kontusail

horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik .

4.- Lurzorua eta etxebizitza erosi eta sustatze eginiko jarduketan zerrenda, ahalik eta zehatzena: zenbatekoa, eskura dauden azalerak, etxebizitza kopura, ukituriko jendea...

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” izeneko aurrekontu-kontusailen betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” izeneko kontusailen betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzaileak aurreikusitako jarduketari aurre egiteko 1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 330 milioi pezeta jarri zituzten 90007-7 eta 92010-8 zenbakiko aurrekontu lerroetan. Horien izena, hurrenez

hurren, “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” delarik.

“Azpiegituren plan zuzentzaileak (13001)” proiektuaren barruan daude bi lerrook, “Toki azpiegituren plangintza eta kudeaketa (13)” Programaren baitan, hurrengo sailkapenekin: organikoa, 21300; ekonomikoa, 7600; eta funtzionala, 4421.

Parlamentuko galdera hau egiten dut ahalik eta zehaztasun handienaz jakiteko kontusail hau nola erabili den 1996ko ekitaldian zehar. Horretarako, hurrengoak erantzutea nahi da:

1. Kontusail horren erabileraren arauketari ezar dakizkiokeen foru-lege, -dekretu eta -aginduen zerrenda.

2. Foru agindu eta ebazpen argitaratuen bidez gauzaturiko gorako aldaketak, eta baita aurrekontuz kanpoko ekarpen edo finantzaketaren ondoriozkoak ere (EEE laguntzak, Elkartasun Fondokak...) 1996ko aurrekontu ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1996ko ekitaldian eskura izan den guztizko kopuru banatua, eskurako kreditua edo 1995eko ekitaldian hitzartutako kreditua denaren arabera.

4.- Aipatu Plan Zuzentzaileak aurreikusitako helburuak erdiesteko, 1996an burutu diren jarduketak, hauexek aipatuz: hasteko urtea, zein herritan burutu den, jarduketaren deskribapen laburra, guztizko inbertsioa, bukatzeko eguna edo noizko espero den bukatzea.

5.- Plan Zuzentzaileak aurreikusten duen Inbertsio Planaren egungo egoera eta horien epe-mugara arte aurreikusten diren inbertsioak.

6.- Aurreko puntuan eskaturiko inbertsioen banakaketa, hurrengoan arabera:

Nafarroako Aurrekontu Orokorren ekarpena

Europako Batasunaren ekarpena

Aurrekontuz kanpoko beste aportazio batzuk.

7. - Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea ezartzearen ondoriozko jarduketaren arteko lehen-tasuna erabakitzeke irizpideak.

8.- Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea ezartzearen ondoriozko jarduketak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hondakinen arloan burutzen dituenak elkarrekin egokitzeko ezarri den sistema.

9.- Plan Zuzentzaileak hartzen duen aldiaren hartu den gastu-konpromezua gaur egun abiatuta dauden aipatu jarduketak bakoitzarendako.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” izeneko kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Nafarroako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, hurrengo galdera egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako hondakin uren saneamenduari buruzko irailaren 29ko 10/1988 Foru Legeak bermatu egin nahi du Nafarroa zeharkatzen duten ibaien erroen ingurugiroaren zaintza eta bereone-ratzea.

1989ko otsailaren 9an onartu zuen Nafarroako Gobernuak Ibaiak Arazteko lehen Plan Zuzentzaile-a.

Inbertsioak eta kostuak egokitu beharrak eta baita tratamendu sistemak eta berrikitan garatu diren teknologiak birraztertzeak ere baldintzatu egin dute bai hasierako Planaren errebisioak, bai azpiegiturei buruzko hirurteko planen baitan garatu diren urteko zazpi programak.

Azken bolada honetan, 91/271 Jarraibidea eta Saneamendu eta Arazketarako Plan Nazionala onartzearen ondorioz, aipatu Plan Zuzentzailea birraztertu eta eguneratu beharra gertatu da.

Plan Zuzentzaileak aurreikusitako jarduketei aurre egiteko 1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 700 milioi pezeta jarri zituzten 92006-0 zenbakiko aurrekontu lerroan. Horren izena, “Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” delarik.

“Azpiegiturako plan zuzentzaileak (13001)” Proiektuaren barruan dago lerro hori, “Toki azpiegituren plangintza eta kudeaketa (13)” Programaren baitan, hurrengo sailkapenekin: organikoa, 21300; ekonomikoa, 7600; eta funtzionala, 4411.

Parlamentuko galdera hau egiten dut ahalik eta zehaztasun handienaz jakiteko kontusail hau nola erabili den 1996ko ekitaldian zehar. Horretarako, hurrengoak erantzutea nahi da:

1. Kontusail horren erabileraren arauketari ezar dakizkiokeen foru-lege, -dekretu eta -aginduen zerrenda.

2. Foru agindu eta ebazpen argitaratuen bidez gauzaturiko gorako aldaketak, eta baita aurrekontuz kanpoko ekarpen edo finantzaketaren ondoriozkoak ere (EEE laguntzak, Elkartasun Fondokak...) 1996ko aurrekontu ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

3.- 1996ko ekitaldian eskura izan den guztizko kopuru banatua, eskurako kreditua edo 1995eko ekitaldian hitzartutako kreditua denaren arabera.

4.- Plan Zuzentzailean (oinarrizko plana) aurreikusitako helburuak erdiesteko, 1996an burutu diren jarduketak, Plan horren kudeaketarako hartu den lurralde zatiketaren arabera (Iparrmendebaldea, Erdiko ibai arroak, Pirinioetako ibarrak, Hegomendebaldea, Erdialdea eta Hegoaldeko Erribera), hauexek aipatuz: hasteko urtea, zein herritan burutu den, jarduketaren deskribapen laburra, guztizko inbertsioa, bukatzeko eguna edo noizko espero den bukatzea.

5.- Plan Zuzentzaileak aurreikusten duen Inbertsio Planaren egungo egoera eta horien epe-mugara arte aurreikusten diren inbertsioak.

6.- Aurreko puntuan eskaturiko inbertsioen banakaketa, hurrengoan arabera:

Nafarroako Aurrekontu Orokorren ekarpena

Europako Batasunaren ekarpena

Aurrekontuz kanpoko beste aportazio batzuk.

7.- 1996ko aurrekontu ekitaldian definitu, hasi edo bukatu diren programatu gabeko jarduketa osagarrien zerrenda, hurrengoak aipatuz: hasi

den urtea, burututako edo aurreikusitako guztizko inbertsioa, herria, zehaztapen laburra eta noizko bukatuko den edo noiz bukatu den.

8.- Industri edo zerbitzu jarduerak sortzen dituzten isurkiak direla eta, entitate pribatuek burutu dituzten ur arazketa lanetako inbertsioe emandako laguntzen zerrenda, hurrengoak aipatuz: noiz eskatu diren, eskatzen duen enpresa, herria, jarduketaren zehaztapen laburra eta laguntza eman den eguna.

9.- 1996an Plan Zuzentzailearen babespean burutu diren jarduketak, lurlantze eta lur uztiatze-tik zein abeltzaintza-ustiapenetatik eratorritako jarduketa okerrak, nekazaritza edo abeltzaintza kutsadura sortu duten edo sor dezaketenak, ekiditeko

10.- Jarduketa bakoitzean ezarri beharreko tratamendua erabakitzeke erabili diren aldagaiak.

11. - Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailearen ezartzearen ondoriozko jarduketan edo obra burutzean arteko lehentasuna erabakitzeke irizpideak.

12.- Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailearen ezartzearen ondoriozko jarduketak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak prestatu dituen Arrain Antolamenduaren Planek dituztenak elkarrekin egokitzeko ezarri den sistema.

13.- Plan Zuzentzaileak hartzen duen aldiari hartu den gastu-konpromezua gaur egun abiatuta dauden aipatu jarduketa bakoitzarendako.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

“Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoretzandako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRIILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoretzandako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz

egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarrikaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek 12180-9 lerroa daukate, "Industri husketak gutxiendu eta arazteko eta ingurugiro auditoretzendako dirulaguntzak" izenekoak. 115 milioi pezetaz zegoen horniturik.

Kontu sail "Ingurugiroa kudeatzea (30000)" proiektuan dago, "Ingurugiroa kudeatzea (30)" programan. Hona hemen haren sailkapena: Organikoa: 31110, Ekonomikoa: 7709 eta Funtzionala: 4421.

Parlamentu-galdera hau egiten da jakiteko, ahalik eta zehazkien, kontusail horri 1996ko aurrekontualdian eman zaion erabilera. Hori dela eta, galdera hauei erantzun dakiela eskatzen da:

1.- Kontu horren erabilpena arautzeko aplikatzeakoak diren Foru Lege, Foru Dekretu eta Foru Aginduen zerrenda.

2.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontuez kanpo-ko ekarpen edo finantzaketaren bidez (bestelako erakundeen laguntzen bidez, kasu), kontusail horretan 1996ko aurrekontualdian barna eskura egon den zenbatekoa egin arte.

3.- 1996ko ekitaldian guztira eskura egon den kopuruaren sailkapena, kreditu eskuragarria edo 1995ean konprometituriko kreditua izateagatik .

4.- Industri husketak gutxiendu eta arazteko dirulaguntzen zerrenda. Esan bedi: noiz eskatu ziren, zer enpresa, entitate edo erakundeek eskatu zituen, jarduketaren zehaztapen laburra, noiz eman ziren eta aipaturiko jarduketa bakoitza zer herritan egiten den.

5.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-konpromezua, ekitaldi honetan bideraturiko espedienteak barne.

Iruñean, 1996ko abenduaren 4a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

1995eko abenduaren 31rako, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako artikuluko ezberdinen itxiera-aurreikuspeni buruzko galdera

ATZERA BIDALITAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, hurrengo erabaki zuen: Juan Ramón Jiménez Pérez Foru Parlamentari jaunak 1995eko abenduaren 31rako, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako artikuluko ezberdinen itxiera-aurreikuspeni buruz egindako galdera, 1995eko urriaren 27ko 14 zk.ko Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, atzera bidali dutela jakinaren gainean dagoe-la adieraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Osasun laguntza bereziaren jarduera eta lurralde antolamenduari buruzko galdera

ATZERA BIDLITAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, hurrengo erabaki zuen: Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak Osasun laguntza bereziaren jarduera eta lurralde antolamenduari buruz egindako galdera, 1995eko azaroaren 3ko 15 zk.ko Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, atzera bidali dutela jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“Familia ugaria”ren konfigurazio berriari buruzko galdera

ATZERA BIDLITAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, hurrengo erabaki zuen: Rafael Gurra Indurain Foru Parlamentari jaunak “Familia ugaria”ren konfigurazio berriari buruz egindako galdera, 1995eko azaroa-

ren 16ko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, atzera bidali dutela jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Urriaren bigarren hamabostaldian osasun zentroetako zuzendarien ordezkapen jakin batzuei buruzko galdera

ATZERA BIDLITAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, hurrengo erabaki zuen: Calixto Ayesa Dianda Foru Parlamentari jaunak Urriaren bigarren hamabostaldian osasun zentroetako zuzendarien ordezkapen jakin batzuei buruz egindako galdera, 1995eko azaroa-

ren 16ko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, atzera bidali dutela jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren etxebizitza, zaindari eta abarrei buruzko galdera

ATZERA BIDALITAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, hurrengo erabaki zuen: Miguel Sanz Sesma Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren etxebizitza, zaindari eta abarrei buruz egindako galdera, 1996ko urtarrilaren 26ko 5

zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, atzera bidali dutela jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak argitaratu duen agenda-egutegiari buruzko galdera

ATZERA BIDALITAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, hurrengo erabaki zuen: Javier Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak argitaratu duen agenda-egutegiari buruz egindako galdera, 1996ko otsailaren 16ko 8 zk.ko

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, atzera bidali dutela jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Fondo publikoen erabilera begiratzeko Gobernuak hartutako erabakiei buruzko galdera

ATZERA BIDALITAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, hurrengo erabaki zuen: Javier Marcotegui Ros Foru Parlamentari jaunak Fondo publikoen erabilera begiratzeko Gobernuak hartutako erabakiei buruz egindako galdera, 1996ko maiatzaren 10eko 26 zk.ko

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, atzera bidali dutela jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Aresoko Lehen Mailako eskolari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentariak Aresoko lehen mailako eskolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko urriaren 31ko 58 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentariak Aresoko lehen mailako eskolari buruz egin duen galdera erantzunez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak honako hau jakinarazi nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak honako jarduketak hauek garatu ditu Aresoko E.Pk nahikoa lokal eta zuzkidura izango dituela bermatzeko: tutoretzaren erdia ematen duen maisu berri bat sartu da; eremuko Ikuskatzaileak txosten bat egin zuen Ikastetxeko egoeraz espazioei buruz; Udalak hala eskaturik, Departamentuko teknikari bat Aresora joan zen egoera aztertu eta txosten bat prestatzeko; teknikari honek berak eta Inbertsio Zerbitzuko Zuzendariak bilera bat eduki zuten Alkate, Ikastetxeko Zuzendari eta Gurasoen Elkartearen Lehendakariarekin; ondoren, Inbertsio Zerbitzuak txosten bat prestatu zuen, lau proposamen zituena (kontuan har bedi udal eskola publikoetan obrak egitea, baita eskolen mantenua ere, udalaren eskumena dela; Aresoko Udala da, beraz, egokien iruditzen zaion irtenbidea hartzeko eskumena duena);

Inbertsio Zerbitzuko Zuzendariak eta bi teknikari proposamen guztien berri eman zieten interesdunei, eta ondoren eskolako dependentziak bisitatu zituzten.

Kudeaketa hauek garatu diren bitartean, eta garatu eta gero, harreman asko izan da bai telefonoaren bidez, bai idazkien bidez eta baita aurrez aurreko elkarrizketen bidez ere; Inbertsio Zerbitzuko Zuzendariak, Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak, Kontseilariaren Kabinete-buruak eta Kontseilariak berak hainbat aldiz hartu dituzte Udala edo eta zenbait ikasleren guraso-taldeak.

2. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du zertan iritzirik emanik Udalaren jarreraz, bere jarduketan inolako legehausterik ikusi ez dugularik.

3. Gaurko egunean, eta Hezkuntza Departamentuaren bitartekaritzari esker, halako akordiohasiera bezalako zerbait lortu da interesdunen artean. Honen ondorioz, Aresoko Udaleko arkitektoa lanean ari da obra-proposamen baten gainean, mahaigaineratu diren eskola-uneen eskaerak behar bezala asebetetzen dituen eta bide batez hobekuntza garrantzikoak sartzen dituen, Areso herri guztiarentzat onuragarriak izango direlarik.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1996ko azaroaren 18a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

| | |
|--|---|
| <p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.700 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .</p> | <p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p> |
|--|---|